



Zerainen bertan egindako gazta eta sagardoa goratu dute, sasoia ofizialki hasiz

by **Aimar Maiz** on 2013/03/23 in **EKONOMIA, GIZARTEA**

Zeraingo Gaztaren eta Sagardoaren Mendia proiektuaren barruan, gaur eman dute hasitzat bertan ekoiztutako Idiazabal gaztaren eta sagardoaren denboraldia. Txotx garaia aurrera doa Zeraingo bi sagardotegietan, eta herriko lau gaztagileek gazta berria aurkeztu dute. Mugaritz jatetxeko Dani Lasa sukaldariak ireki du gazta berria, eta Oiharteko zein Otatzako sagardo botila banari kortxoa kendu die.



Dani Lasa sukaldaria, Zeraingo sagardo botila bat irekitzen, alkatearen ondoan./Aimar Maiz

Zerain Dezagun Fundazioak bultzatuta, bertako produktuak balioan jartzea, kontsumi daitezen laguntza ematea, eta herritarrek bertako jakien balioa jaso dezaten kontzientzia piztea dira Gaztaren eta Sagardoaren Mendia proiektuaren helburuak, baita Zeraingo lanbideak eta ekonomia laguntzea ere. Fundazioaren lehendakari Andoni Alustizak azaldu duenez, Zerainen etorkizuna “bertan bizitzeari eta bizimodua bertan ateratzeari lotuta” dago. “Bertan egiten den gaztari eta sagardoari etekina atera behar zaio, hortik bizi diren familiei bidea eginez eta laguntza emanez. Benetan sinistu behar dugu Euskal Herrian

produzitutakoak bertan kontsumitu behar ditugula. Baina oso urruti gaude hortik. Zerainen hori errotu beharra dago. Sagardotegiek bertako gazta jartzearen apustua egin dute. Zerainen posible bada, beste lekuetan ere bai”.

Zeraingo sagardoaren eta gaztaren aurkezpena kultur etxean egin dute, gaur goizean. Zeraingo alkate Joxe Manuel Oriaz eta Fundazioko Alustizaz gain, Idiazabal Gazta Jatorri Izendapenaren Kontseiluko buru Joxe Mari Uztarroz ere bertan izan da. Alustizaren ildo beretik jo du Uztarrozek: “Kanpoan erosi eta saltzea erraza da. Zuek bertako produktuak ateratzen dituzue, bertakoek eginak; horiek bultzatu behar dira. Zoriondu egin nahi zaituztet lan horregatik, lurraldeari etorkizuna ematen diozuelako, eta bertan bizitzeko ilusioa sortu. Ea inguru guztia kutsatzen duzuen horrela”.



Zerainen lau artzainek egiten dute Idiazabal gazta. Lasa, gazta berria ebakitzen, Uztarroz, Oriaz, Oroz eta Alustiza inguruan./Aimar Maiz

Eusko Jaurlaritzaren izenean, Nekazaritza, Arrantza, Elikagai eta Landa Garapeneko sailburuorde Bittor Oroz ataundarra izan da. Zeraingo irekieran egotea “oso berezia” dela beretzat aitortu du, eta Zeraingo herria zoriondu du. “Beti, jarraitu beharreko eredu gisa ikusi dut Zerain, eta orain ere bai. Bere baliabideak balioan jarritz etorkizuna bermatzen duzue, iragana ahaztu gabe”.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, nekazaritza gaietarako “diru gutxi” dagoela onartu arren, azaldu du bere sailak lau urterako ekinbidea hiru ardatzen gainean finkatu duela. Ohiko gastronomiaren eta turismoaren zutabeei, “produkzio agroalimentarioa” batuko diete. “Garbi daukagu, Zerainen bezala, halako gauzak indartu behar direla. Gure produktuak turismoaren eta gastronomiaren ataletan uztartu nahi ditugu”, esan du Orozek.



Zeraindar multzo bat inguratu da ekitaldira, eta bukeran bertako sagardoa nahiz gazta dastatu dituzte./Aimar Maiz

Mugaritzeko Dani Lasak, gazta ebaki aurretik, lurraldea, nortasuna eta kanpora irteteko bertako produktuengan egin duten apustua nabarmendu ditu. “Ikusi genuen, lurraldeak eta bere nortasunak nahikoa pisu bazutela guri falta zitzaigun nortasuna emateko. Orduan hasi ginen nortasuna edukitzen, eta orduan atera ginen kanpora”. Zerainen, herriari eta ondareari “distira” atera diotela goraipatu du Lasa sukaldariak.

📍 **garapena, gazta, gaztaren eta sagardoaren mendia, idiazabal gazta, nekazaritza, proiektuak, sagardoa, zerain dezagun**

◀ Gazte Eguna ospatzen ari dira Lazkaon

Euskal Herriko Itzuliko azken bi etapen behin betiko ibilbideak zehaztu dituzte ▶

Profile

[Sign in with Twitter](#) [Sign in with Facebook](#)

or

Name

Email

Not published

Website

CAPTCHA Code *



Bilatu zure inguruko sagardotegia

Bilatu



Talai Berri txakolindegia eta Amezti Gain jatetxea
23,00 €

[Eskaintza ikusi](#)

GUTUNAK

"Zabor poltsak direla eta"

Aitzol Garmendia. Lazkao. Lazkaoko herria zabor poltsez...

OTEIZARI OMENALDIA



BIDEOAK



Lore eta landare azoka Seguran. 2013 martxo

1:42



Lazkao Txiki musika eskola

7:39



Dhuna taldea

2:38

LABURRAK

Estanda Ordiziak irabazi egin dio Tecuni Bilbori

Biok Zerbitzuaken galdu egin du Durangoren aurka

San Joan jaiak prestatzeko lehen bilera astelehenean izango da Olaberrian

Ataungo Udalak garbiketa zerbitzua kontratatuko du

Lazkaoko musika ikasleen kontzertua udaletxeko arkupeetan, gaur

‘Hysteria’ filma Ataunen, eta ‘Amor’ Lazkaon

Irakurri guztiak

INKESTA

Goierriko hainbat herritan martxan jarri dituzte herritarrek parte hartzeko programak. Zer iruditzen zaizkizu ekimen horiek?

- ☐ Beharrezkoak
- ☐ Alferrikakoak
- ☐ Ez dakit zer diren

Vote

GOIERRIKO BLOGARIAK



ilunxko: izond. (batez ere Ipar.) Ilun samarra. (Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa) Sinonimoak: izond. Ipar.



Barraondoko elkarriketak (XXI): - Atsaldeon hi! Zer moduz? - Ba erreta, oso erreta!! - Ze pasatzen zaik ba? - Ze pasatzen zaieken? E...




Adiskide, egin dezagun euskaraz!: Karmele Aierbe Euskaldunen artean, euskaraz jakin arren, erdaraz aitzen diren ezagun askorekin sa...



Astea sareetan VI: *View as slideshow* Toni Nova 00Share Share on Facebook Share on Twitter Share on Pinterest Share on G...



Amagandiko esneak haurrentzako ezinbestekoak diren 700 bat bakterio daramatza: *American Journal of Clinical Nutrition-en* ikerketa berri batek, osasuntsu dauden amek berai...



Dependentziak: *Dependentziari* buruz idatzi nahi dut gaur, erabakitzeko gaitasuna nahieran astintzen duelako,...



Oteiza: Oteiza eta Ordizian dagoen bere eskulturaren inguruan Goiberrirako egindako ilustrazioa. Ilustración...



HITZETAN: Randy Mosher: 'Adreilu bat Starbucks baten leihora botatzea atsegina izango da soziopata burugabe bat...



AUSA GAZTELU (904 m.) ETA ESNAURRETAKO BORDAK OLAKOSAITIK, 2013/03/03: Ausa Gaztelu (Gaztelu goierritarrontzat) beharbada Goierriko Aralarren dagoen mendirik ahaztuenetako...



BILATU


HERRIAK

Altzaga | Arama | Ataun | Beasain | Ezkio-Itsaso | Gabiria | Gaintza | Idiazabal | Itsasondo | Lazkao
Legazpi | Legorreta | Mutiloa | Olaberria | Ordizia | Ormaiztegi | Segura | Urretxu | Zaldibi | Zaldibia
Zegama | Zerain | Zumarraga |

El Tiempo en el mundo

El tiempo en Beasain

ZORION AGURRAK



Luar Oiarbide (Legorreta)

3 urte! Urte askotarako pirata! 3 muxu potolo Beñat, Josu, Aihen, Aritz, Naia, Anari eta Uxueren partetik.

[irakurri gehiago »](#)



Imanol Etxeberria Urreta

Zorionak Leireren eta familia osoaren izenean, igandeko partez

[irakurri gehiago »](#)

Guztiak irakurri

ESKELAK

Antton Lekuona Gantxegi

Joxe Agirrezabala

Guztiak irakurri

BERRIKETAN.INFO



ttikik taldea

posted an update

1 hour, 31 minutes ago

<http://is.gd/mMuOQM> 0-5 6-11 AdimenEmozionala Gehiegizkobabesa Haziera Hezkuntza
Sozializazioa



ttikik taldea

posted an update

9 hours, 26 minutes ago

#Oparipuina: Hiru erregin t'erdia eta patata tortila bat-#TTiKLiK! <http://fb.me/1ANxUCx9D>



ttikik taldea

posted an update

9 hours, 26 minutes ago

#ttiklik gogoratzen::... <http://is.gd/mMuOQM> #0-5 #6-11 #AdimenEmozionala #Gehiegizkobabesa
#Haziera #Hezkuntza #Sozializazioa



ttikik taldea

posted an update

9 hours, 27 minutes ago

TTiKLiK azken sarrerak <http://fb.me/1cmT93XES>



ttikik taldea

posted an update

9 hours, 27 minutes ago

#ttiklik gogoratzen-recordando:: Pixoihaiek gorderik daramaten benetako zikinkeria
<http://is.gd/Vjza9L> #TTiKLiK!

BEREZIAK

WEBGUNE LAGUNAK:

POPULAR	COMMENTS
	• Atez atekoari aukera bat emateko eskatu dute Ordizia Zero Zaborrekoek 2013/03/16
	• Babes zabala jaso du Korrikak goizaldean 2013/03/21
	• Ataungo Udalak garbiketa zerbitzua kontratatuko du 2013/03/22
	• San Joan jaiak prestatzeko lehen bilera astelehenean izango da Olaberrian 2013/03/22
	• Atez atekoaren aldeko jaia izango da igandean Legorretan 2013/03/22

PAPEREKOA 2013-03-22

- Babes zabala jaso du Korrikak goizaldean
- Udalak bere eskumenekoak diren neurriak hartu ditu lapurretei aurre egiteko

GOIBERRI 52. ZENBAKIA

- Ibaiaren hegiak
- Itzulia, bueltan



Asteburuan bukatuko da Martxoan Bertsoa lehia

- Lazkaon Gazte Eguna ospatuko dute bihar, asanbladaren lehen urtean

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI



- «Postari lanean, bost herri txikitan, bost giro

desberdin ezagutu ditut»

- Dhuna: Goierriko hiru nesken musika taldea
- Lore eta landare saltzailea

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

KIROLA

- Cajasol Cienciasi etxean irabazita, laugarren postuari sendo eusten dio Ampo Ordiziak
- Emaneurre taldea gustura agertu da asteburu kulturalak izandako harrerarekin
- Euskal Herriko Itzuliko azken bi etapen behin betiko ibilbideak zehaztu dituzte
- Irristalarien topaketa izango da gaur Lazkaon

KULTURA

- Bi bertsolari bizkaitar Osinalde sariko finalera
- 'Kontuzatsuak' taldeko neskek irabazi dute Martxoan Bertsoa
- Euskara ez da erretiratzen
- Lazkaoko musika ikasleen kontzertua udaletxeko arkupeetan, gaur

AISIA

- Badator udaberria Goierriara
- Aurtengo gida turistikoa aurkeztu du Goiturrek
- Argazkigintza tailerra antolatu da Igartubeitin larunbat honetarako
- Lazkaoko Gazte Asanblada inauteriak ospatzen ari da

GIZARTEA

- Zeraindarrek herriko gazta eta sagardo berria aurkeztu dituzte
- Zerainen bertan egindako gazta eta sagardoa goratu dute, sasoia ofizialki hasiz
- Gazte Eguna ospatzen ari dira Lazkaon
- Irristalarien topaketa izango da gaur Lazkaon

EKONOMIA

- Olaberriako ArcelorMittal lantegian erregulazio espedienteak ezarri dute
- Zerainen bertan egindako gazta eta sagardoa goratu dute, sasoia ofizialki hasiz
- Ataungo Udalak garbiketa zerbitzua kontratatuko du
- Auto elektrikoen alokairuko tarifak berritu ditu Ataungo Udalak

POLITIKA

- Ikurrinaren Aldeko Lagunak taldearen eskerrak herritarrei
- Ernai gazte antolakundearen pintadak salatu ditu Beasaingo EAJ-PNVk
- 'Parot' doktrinaren aurkako manifestazioa egin dute Legazpin
- Legorretan manifestazioa egingo dute gaur, atez atekoaren aurka

© Goierriko Hedabideak S.L.
Oriamendi 32, 20200 - BEASAIN- Tel.: 943 160 056 - Faxe 943 889 612 / Barrenkale, 13
20700 - URRETXU - Tel: 943 72 34 08 - E-posta: goierri@hitza.info

